



OSOKO KONTSEILUA
CONSELL PLENARI
CONSEIL PLÉNIER
CONSELH PLENARI
CONSEJO PLENARIO

PLEren XL. Osoko Bilkura Arantzazu, 2022ko azaroaren 30a

Okzitaniako presidentea,
Nafarroako Gobernuko presidentea,
Andorrako Gobernuko Kanpo Harremanetarako ministroa, Mugaz gaindiko lankidetzarako
Andorrako erakundeko presidente gisa,
Akitania Berriko presidentea,
Aragoiko Gobernuko presidentea,
Kataluniako Generalitateko presidentea,
Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria, azken hau
Pirinioetako Lan Elkartearen Partzuergoaren (PLE) lehendakari gisa.

Osoko Bilkuran bildu dira 2022ko azaroaren 30ean, ARANTZAZUN (Oñati, Gipuzkoa):

Osoko Bilkura pozik dago berrogeigarren bilera egiteagatik eta PLEk egin duen lanagatik, eta aintzat hartu du aurreko guztien lana.

Urteurren hau PLEko kideen borondatea berresteko aukera bat da, hala, mugaz gaindiko lankidetzaren eredu garri hori indartzeko eta bere lurraldeetako biztanleen zerbitzura egoten jarraitzeko.

Aukera ere bada Europar Batasunean hurbiltasunaren, parte-hartzearen, lankidetzaren eta integrazioaren balioen aldeko apustua egiten jarraitzeko.

Lau hamarkada hauetan mugarri garrantzitsuen lekuko izan gara. Azkenaldiko mugarri aipagarrien artean daude, besteak beste, PLE izendatu izana INTERREG-POCTEFA programa kudeatzeko agintaritza, Klima Aldaketaren Pirinioetako Behatokia sortu eta sendotzea, 2018-2024 Pirinioetako Estrategia, Klima Aldaketaren Estrategia, Pirinioetako Lurzoruen Aliantza (ASPIr), eta larrialdi medikoei buruzko mugaz gaindiko akordio aitzindariak, azken hau Espainiako eta Frantziako osasun-ministerioek oraindik onartu ez dituztenak.

Haatik, aurrerapen nabarmen hauek ez gaituzte aldendu behar gaur egun Europak dituen erronka ugarietatik. Ildo horretan, Osoko Bilkura oso kezkatuta dago Ukrainako gerrarekin. Horrek bezala, krisi energetikoak, klima-aldaketak eta pandemiaren ondorioen tratamenduak ere, eskatzen dute Europar Batasunak modu bateratu eta solidarioan erantzutea.

Osoko Bilkurak konfiantza eta babesa ematen die Europar Batasunak hartutako neurriei, eta berresten du Ukrainari elkartasuna erakustearen aldeko eta Errusiako Federazioak 2022ko otsailean hasitako erasoaren aurkako Adierazpena. Aldi berean, gaitzesten du energia-hornidura

gerrako arma gisa erabiltzea. Beraz, PLEk eta bere kideek energia-trantsizioa bizkortzeko konpromisoa hartzen dute.

Babestu eta onartzen ditu klima-aldaketari buruzko COP27 bileran hartutako erabakiak (Egipton egin zen bilera, azaroaren 6tik 18ra), anbizio handiagokoak eta zehatzagoak izatea nahiko balu ere. Orobat, Nazio Batuen Mendiatarako Aliantzaren esparruan egindako ahaleginekin jarraitzea animatzen dugu, mendi-eremuek klima-aldaketaren eraginen aurrean duten kalteberatasuna agerian uzteko.

Osoko Bilkurak uste du, ikuspegi partekatu batetik eta ekintza-batasunaren bidez, Europar Batasunak erronka horiek gainditzen lagundu ahal izango duela.

PIRINIOETAKO LAN ELKARTEAK «ARANTZAZUKO ADIERAZPENEAN» HARTUTAKO ERABAKIAK, XL. OSOKO BILKURAREN HARIRA

PLEren Osoko Bilkura:

- Bere lurraldeetako gizarte zibilarekiko eta herritarrekiko konpromisoa berresten du. Bere herritarren ongizateak eta mugaz gaindiko espazioaren ezaugarri sozial, kultural, linguistiko eta ekonomiko bereizgarrien balorazioak erabakien erdigunean egon behar dute.
- Europako Batzordeari eskatzen dio Mugaz Gaindiko Lankidetzako Europako Mekanismoaren (MGLEM) inguruan sakontzen eta adostasunak bilatzen jarraitu dezala, baita bere *b-solutions* ekimena gauzatzen ere, mugaz gaindiko lankidetzan dauden lege- eta administrazio-oztopoak konpontzeko.
- Adierazten du ez duela begi onez ikusten duela urtebete baino gehiago Pirinioetako mugako zortzi pasabide itxiak irautea, horrek kalte egiten baitie mugaz gaindiko herritarrei. Gainera, erabaki horrek Schengengo Hitzarmenaren xedea urra lezake.
- Pozten da Europar Batasuneko Kontseiluak 2022ko ekainaren 21ean Andorraren eta Europar Batasunaren arteko elkartze-akordioaren negoziazioen inguruan atera zituen ondorioengatik, eta aitortzen du garrantzitsua dela ondo zehaztutako ibilbide-orri batean oinarrituta lan egitea, negoziazioak 2023. urtea bukatu baino lehen amaitzeko.
- Pirinioez gaindiko interkonexio-azpiegiturak garatzeko estatuarteko negoziazioak babesten ditu. Azpiegitura horiek energia-horniduraren jatorriak dibertsifikatzen lagunduko dute, bai eta deskarbonizazioa sustatzen ere, energia-iturri berriztagarriak erabiliz, hala nola hidrogeno berdea eta biometanoa. Era berean, eskualdeek eta autonomia-erkidegoek erabakitzeko prozesuan parte ahal izatea eskatzen du.
- Deitoratzen du Europako Batzordeak Europa barneko garraio-sareak (TEN-T) berrikusteko egin duen proposamenak Ipar Itsasora eta Baltikora birbideratzea Ukrainara doazen korridoreak, eta ez Mediterraneora. Hori dela eta, Frantziako eta Espainiako gobernuei apustu irmoa egiteko eskatu die, Europako hego-mendebaldeko interesen aldeko konfigurazioa aldarrika dezaten.
- Pirinioez gaindiko lankidetzaren protokolo bat bultzatzeko konpromisoa hartzen du, hidrogeno berriztagarria sustatzeko, hidrogenoaren ekonomia hedatzeko mugaz gaindiko espazio bat

sortze aldera, lurraldeen posizionamendua indartuta eta Estatuko eta Europako estrategietan ezarritako deskarbonizazio-helburuak lortzeko aukera emanda.

- Klima Aldaketaren Pirinioetako Behatokiak Klima Aldaketaren Pirinioetako Estrategia hedatzen jarraitzearen aldeko apustua egiten du, 2030eko Plan Eragilea onartuta.
- Gazteriarekiko konpromisoa duela adierazten du, eta, horrekin lotuta, Hondarribian (EAE) egindako Gazteriaren Pirinioez gaindiko II. Foroaren arrakasta ospatu du. Foro horren helburua Pirinioetako 7 lurraldeetan gazteen eta erantzukizun politikoak dituzten pertsonen arteko elkarriketa sustatzea da, eta bereziki 2022. urtean sendotu da, Gazteriaren Europako Urtean, alegia.
- Pozten da Europako Batzordeak 2021-2027 aldirako POCTEFA programa onartu berri duelako. Programa horrek Feder aurrekontua nabarmen handitzea aurreikusten du (243 milioi euro), eta lehen proiektu-deialdia 2023rako aurreikusita dago.
- 2021-2027 aldirako POCTEFA programaren izaera berritzailea nabarmentzen du, bereziki 5. helburu politikoaren bidez («Herritarrengandik hurbilago dagoen Europa»). Gainera, mugaz gaindiko eremuetan abiarazitako partaidetza-prozeduren balorazioa positiboa da, maila anitzeko gobernantza-eredu gisa.
- Zoriontzen eta eskertzen dizkie Nouvelle-Aquitaine-Euskadi-Nafarroa eta Pirinioak-Mediterraneoan euroeskualdeei eta Pirinioak-Pyrénées MLEtari, Pirinioetarako mikroproiektuen deialdian elkarlanean aritzeagatik, bai eta PLEekin batera 2021-2027 aldirako POCTEFAren 5. helburu politikoa garatzeko garaian izango dute garrantziagatik.
- Mugaz gaindiko lankidetzaren indartzeko beharra berresten du, funtsezko tresna baita mugaz gaindiko herritarren beharrei eta egungo trantsizio energetiko, digital eta sozialeko erronkei erantzungo dien kohesio-politika garatzeko.
- Azkenik, eskertzen die programako erakundeei egindako lanarengatik, baita Europako Batzordearekin izandako lankidetzaren onaren nabarmendu ere.

Alain Rousset jauna
Francisco Javier Lambán Montañés jauna
Pere Aragonès i Garcia jauna
Carole Delga andrea
María Chivite Navascués andrea
Maria Ubach Font andrea
Iñigo Urkullu Renteria jauna